

UPV/EHUko IRAKASLEEN JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA - 2015

EI11: Euskarazko eskuliburuak argitaratzea (irakasmateriala).

UPV/EHUko sailtako irakats betebeharrekin ia-ia sailen irakats ahalmenaren % 100 hartzen dutenez, Irakasleen Jardun Akademikoaren Plana (JAP) osorik berrikusi behar izan da eta 2015eko urriaren lean, Gobernu Kontseiluan JAParen birmoldaketa onartu zen (<http://www.ehu.eus/eu/web/iip/>). Ondorioz, ISSN-dun aldizkarietako artikuluak ez dira aitortu eta ikasliburuak onartu diren arren, esleitutako kreditu-kopurua erdia izan da, gehienez 2 kreditu, hain zuzen. Hau horrela izanda UPV/EHUko Euskara Batzordeko Azpibatzenordeak 2016ko urtarrileko 8ko bilkuran onartutako irizpideak dira aplikagarri:

1. Bi deialdietan material bera aurkezten bada, deialdi bakar batean balioztatuko da.

2. Liburua edo ikasmaterialaren egileari 2 kreditu gehienez esleitzen zaio. Kreditu-kopurua kalkulatzeko, aurreko urtetan kreditu errekonozimenduetan egiten zen bezala, egile eta orrialde-kopurua kontutan hartu da. Bi egile edo gehiagoren arteko lanak direnean, orrialde-kopurua zati egile kopuruaren formula aplikatu da. Liburuaren kapituluak edo atalak modu berdinean balioztatzen dira.

- 150 orrialde edo gehiagoko lanak: 2 kr.
- 101 - 150 orrialde: 1.5 kr.
- 51 - 100 orrialde: 1 kr.
- 25 - 50 orrialde: 0.5 kr.
- < 25 orrialde: 0.25 kr.

3. Liburuaren koordinatzaile, editore, zuzendari edo hizkuntza zuzentzaile lana egiteagatik kreditu bat gehienez orrialde-kopuruaren arabera.

- 150 orrialde edo gehiagoko lanak: 1 kr.

- 101 -150 orrialde: 0.75 kr.
- 51 – 100 orrialde: 0.5 kr
- < 50 orrialde: 0.25 kr.

4. Bestelako liburuetan, material dozente osagarritzat hartzen direnetan, egileari kreditu bat gehienez esleitu zaio. Kreditu-kopurua kalkulatzean, egile eta orrialde-kopurua kontutan hartu da. Liburuen kapituluak edo atalak modu berdinean balioztatzen dira.

- 150 orrialde edo gehiagoko lanei: 1 kr.
- 101 -150 orrialde: 0.75 kr.
- 51 – 100 orrialde: 0.5 kr
- 25 - 50 orrialde: 0.25 kr.
- < 25 orrialde: 0.1 kr.

5. Bestelako liburuetan, material dozente osagarrien koordinatzaile, editore, zuzendari edo hizkuntza zuzentzaile lana egiteagatik 0.5 kreditu gehienez orrialde-kopuruaren arabera.

- 150 orrialde edo gehiagoko lanei: 0.5 kr.
- 101 -150 orrialde: 0.4 kr.
- 51 – 100 orrialde: 0.2 kr
- < 50 orrialde: 0.1 kr.